Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko maiatzaren 3a, ostirala — 82 — Viernes, a 3 de mayo de 2019

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## USURBILGO UDALA

*Iragarkia*

Udal Osoko Bilkurak, 2018ko abenduaren 20an ospatutako ezohiko bilkuran, Buruntzaldean bazterkeriako arrisku egoeran dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitza-zerbitzuen arautegia hasieraz onartu zuen.

Hasierako onarpen horren iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen 2019ko urtarrilaren 24an, eta hala jendaurrean jartzeko eta entzuteko aldia hasi zen, 30 lanegunerako. Jendaurreko epea amaitu da eta ez da iradokizunik edo alegaziorik aurkeztu.

Horrenbestez, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legeko 49. artikuluko azken paragrafoan xedaturikoarekin bat, egun horretatik aurrera hasierako onarpen erabakia behin betiko onartutzat jo daiteke eta, horren ondorioz, orain akordioaren testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu behar da.

Interesatuek bide administratiboan behin betikoa den erabaki honen aurka jo dezakete, Bilbon dagoen Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Aretoan administrazioarekiko auzi-helegitea jarriz bi hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Usurbil, 2019ko apirilaren 26a.—Xabier Arregi Iparragirre, alkatea. (2740)

*Buruntzaldean bazterketa arriskuan dauden pertsonentzako Tutoretzapeko Etxebizitza Zerbitzuaren Araudia.*

Aurkibidea.

Zioen azalpena.

1. Araudia.

1.1. Definizioa eta helburuak.

1.2. Xedea.

1.3. Erabiltzaileak.

1.4. Baldintzak: administratiboak eta espezifikoak.

1.5. Prozeduraren hasiera.

1.6. Dokumentazioa.

1.7. Balioespena, diagnostikoa eta orientazioa.

1.8. Ebazpena, plazaren adjudikazioa eta onarpena.

1.9. Itxarote-zerrenda.

1.10. Esleitutako zerbitzura egokitzeko aldia.

1.11. Behin betiko sarbidea izateko aurretiazko tramiteak.

1.12. Arreta emateko plan pertsonalizatua.

1.13. Denbora.

1.14. Zerbitzua erabiltzeko aldiaren amaiera.

## AYUNTAMIENTO DE USURBIL

*Anuncio*

El Pleno Municipal, en sesión celebrada el 20 de diciembre de 2018, acordó aprobar inicialmente la «Normativa para la prestación de los servicios de alojamiento en viviendas tuteladas para personas en riesgo de exclusión de Buruntzaldea».

El 24 de enero de 2019 se publicó en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa anuncio de la citada aprobación inicial, abriéndose el plazo de información pública por plazo de treinta días hábiles. No consta que dentro de dicho plazo se haya presentado sugerencia ni reclamación alguna.

En consecuencia, de conformidad con lo dispuesto en el último párrafo del artículo 49 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases del Régimen Local, a partir de esa fecha puede entenderse definitivamente adoptado el acuerdo de aprobación inicial y procede, por tanto, la publicación del texto íntegro del acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Contra la presente resolución que pone fin a la vía administrativa, las personas interesadas pueden presentar Recurso Contencioso-Administrativo, ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la fecha de publicación de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Usurbil, a 26 de abril de 2019.—El alcalde, Xabier Arregi Iparragirre. (2740)

*Normativa para la prestación de los Servicios de Alojamiento en Viviendas Tuteladas para personas en riesgo de exclusión de Buruntzaldea.*

Índice.

Exposición de motivos.

1. Normativa.

1.1. Definición y objetivos.

1.2. Objeto.

1.3. Personas usuarias.

1.4. Requisitos: administrativas y especificas.

1.5. Inicio del procedimiento.

1.6. Documentación.

1.7. Valoración, diagnóstico y orientación.

1.8. Resolución y adjudicación de plaza y admisión.

1.9. Lista de espera.

1.10. Periodo de adaptación al servicio asignado.

1.11. Trámites previos a la entrada definitiva en el recurso.

1.12. Plan individual de atención.

1.13. Tiempos.

1.14. Finalización del periodo de utilización del servicio.

EK\CV GAO-I-2019-02740

2. Baliabideak.

2.1. Giza baliabideak.

2.2. Finantziazio Baliabideak.

I. eranskina.

ZIOEN AZALPENA

*Egungo testuingurua.*

Gaur egungo testuinguruan hainbat eskumen-esparruk zenbait ekimen egin dituzte aldi berean eta horiek gogoeta eginarazi digute udal-zerbitzuen gaur egungo egituraren inguruan, baita era koordinatuan lan egin beharraren inguruan ere; izan ere, lan horrek emango die erantzuna eskualdean epe laburrera edo epe ertainera beharrezkoak izango diren edo izan daitezkeen baliabide-premiei.

Ezin dugu ahaztu, beste eskualde batzuen aldean, Buruntzaldeak ez duela ez tradiziorik ezta eskualde-egiturarik ere; beraz, hori aurrez landu beharreko alderdi bat da hala zerbitzuen zorroaren dekretuak 185/2015) nola Gipuzkoako gizarte-zerbitzuen mapak markatzen dizkiguten betebeharrei erantzun ahal izateko.

*Zerbitzuen zorroa.*

Zerbitzuen zorroa onartuta gizarte-zerbitzuen legean (2008ko 12 legea) jasotzen diren prestazioen eta zerbitzuen katalogoa garatzen da. Dekretu honek administrazio bakoitzaren esparrua eta eskumen-banaketa jasotzen ditu.

Zerbitzuen zorroari buruzko dekretuak erkidegoaren, foru-aldundien eta udalen eskumen-banaketa jasotzen du, eta lehen mailako (udalen eskumena) zein bigarren mailako (foru-aldundien eskumena) arreta bereizten ditu.

*Gipuzkoako gizarte-zerbitzuen mapa.*

Lehen mailako eskumenen baitan mapa honek hauek guztiak zehaztu ditu:

— Zeintzuk diren lurralde historikoarenak (Gipuzkoa).

— Zeintzuk diren gizarte-zerbitzuen sektorekoak (ekialdea eta mendebaldea; Buruntzaldea ekialdeko sektorean dago).

— Zeintzuk diren eskualde administratiboarenak. Udalerriez gaindiko unitateak dira. Gure kasuan Donostialdearen parte gara.

— Zeintzuk diren gizarte-zerbitzuen eremuak. Udalerriez gaindiko unitateak dira baina gertutasun-maila handia dute. Gure kasuan dagokigun unitatea Buruntzaldea-eremua da. (Dokumentu honen helburua eremu honi dagozkion beharrezko baliabideei ekitea eta horiek garatzea da).

— Zeintzuk diren oinarrizko guneak. Udal bakoitzari dagozkio.

*Elkarrekin (Inklusioa Gipuzkoa).*

Gipuzkoarako esparru orokorra gauzatu gabe dago.

*Egungo egoera ekonomikoa eta soziala.*

— Kolektibo berriak daude bazterketa-arriskuan. Azken urteetan eta krisi ekonomikoaren ondorioz, bazterketa-arriskuan dauden pertsonek profil berriak dituzte.

— Funtsean enplegu-galerarekin lotuta daude (adibidez, prestakuntza eskasa dela-eta gizarteratzeko zailtasunak dituzten 45 urtetik gorakoak...).

— Baita enpleguaren kalitate baxuarekin eta enplegu horien baldintzekin lotuta ere (esaterako, soldata baxuak eta behin-behinekoak dituzten familia gurasobakar amadunak).

— Babesa bilatuz beste leku batzuetatik iritsi diren profil berriak.

2. Recursos.

2.1. Recursos humanos.

2.2. Recursos financieros.

Anexo I.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

*Contexto actual.*

En el contexto actual han coincidido diferentes iniciativas desde marcos competenciales diferentes que nos han obligado a reflexionar sobre la actual estructura de los servicios municipales y de forma paralela sobre la necesidad de un trabajo coordinado que de respuesta a las necesidades de los recursos que a nivel comarcal sean o puedan ser necesarios a corto y medio plazo.

No podemos obviar que a diferencia de otras comarcas, Buruntzaldea no tiene tradición ni estructura comarcal; cono lo cual es un aspecto a trabajar de forma previa para poder dar respuesta a las obligaciones que nos marcan tanto el decreto de cartera (185/2015) como el mapa de servicios sociales de Gipuzkoa.

*Cartera de servicios.*

Con la aprobación del decreto cartera se desarrolla el catálogo de prestaciones y servicios recogidos en la ley de servicios sociales (ley 12 del 2008). Este decreto recoge el marco y reparto competencial de cada una de las administraciones.

El decreto de cartera recoge el reparto competencial entre las administraciones autonómicas, foral y municipal haciendo una distinción entre servicios y prestaciones de atención primaria (competencia de los ayuntamientos) y secundarias (competencia foral).

*Aprobación del mapa de servicios sociales de Gipuzkoa.*

Dentro de las competencias de atención primaria el mapa concreta todo esto:

— Cuales son del territorio histórico (Gipuzkoa).

— Cuales con los sectores de servicios sociales (este y oeste; Buruntzaldea se ubica en el sector este).

— Cuales con en la comarca administrativa. Son unidades territoriales supramunicipales. En nuestro caso somos parte de Donostialdea.

— Cuales son las áreas de servicios sociales. Unidades de carácter supramunicipal pero con un nivel alto de proximidad. Siendo en nuestro caso el área de Buruntzaldea.

— Cuales son las zonas básicas. Corresponden a cada ayuntamiento.

*Elkarrekin (Inclusión Gipuzkoa).*

Pendiente abordar el marco general de Gipuzkoa.

*Situación económico-social actual.*

— Hay nuevos colectivos en riesgo de exclusión. En los últimos años y como consecuencia de la crisis económica surgen nuevos perfiles de personas en riesgo de exclusión.

— Vinculadas fundamentalmente a la pérdida de empleo (ej. Mayores de 45 años con dificultades de inserción asociada a la escasa cualificación...).

— A la baja calidad del empleo y sus condiciones (ej. Mujeres monomarentales con salarios bajos y temporalidad).

— Nuevos perfiles de personas que llegan de otros lugares buscando refugio.

EK\CV GAO-I-2019-02740

— Jabetzara bideratuta dagoen eta alokairu sozialera bideratuta ez dagoen etxebizitza-politika.

— Etxebizitza pobreziaren sortzaile (hipoteka eta alokairu altuak, modu iraunkorrean).

Hemen aipatutako egoeren aurrean Gipuzkoako Aldundiak 2016ko ekainean aurkeztu zuen Elkar-ekin proiektuaren helburua da liderra izatea desberdinen artean eraiki dadin Gipuzkoaren gizarte-inklusioaren plana (zerbitzuen zorroaren arabera, foru-aldundiari dagokio).

*Eskualdeko esperientzia.*

Eskualdean, Beterri Buruntza hain zuzen hainbat egitasmo garatu dira orain arte. Esku artean dugun proiektuarekin beste pauso bat ematen da bailaran.

— Proiektu koordinatuen esperientziak.

— Auzolan berotegiak.

— Gizarte-larrialdietarako pisuak emakumeentzat.

— Prestakuntza eta enplegua.

— Foro soziala Hernanin.

— Koordinazio sistematikoa teknikarien artean.

*Bazterketa kontzeptua.*

Definizioa.

Pertsonen bizitzan agertzen den fenomeno soziala. Fenomeno honek gizartearen erdigunetik (jabetza-gizartearen batez besteko bizitza-estandarrak) urruntze-prozesuan izatea komunean duten egoera ugari hartzen ditu bere baitan. Bazterketa-egoeran dagoen pertsona gizartean gizartetik urruntzeko egoeran dago. Pertsona urrunduta dago edo urruntzen ari da:

— Ondasunetatik, baliabideetatik (erlaziozkoak, materialak, pertsonalak) eta gizarte jakin baten maila ertaineko zerbitzuetatik.

— Bizitza-mailatik eta jabetza-gizarteak berezkoak dituen eskubide sozialez gozatzetik.

— Gaur egungo gure gizartean, herritarrek eskaintzen dituzten aukeretatik pertsonaren oinarrizko beharrak asebetetzeko.

Pertsonak gizarte-bazterketako egoeran daude horien bizitza eta elkarbizitza-baldintzei denboran irauten duten gabezia ugarik eragiten badiete. Bazterketak dimentsio ugari ditu; hortaz, pertsona edo talde batzuk gizarte-inklusioa eta, beraz, herritarren identitatea eratzen duten hartu-eman, praktika eta eskubide sozialetan parte hartzetik kanpo uzten dira. Gizarte-bazterketa ez da soilik baliabide ekonomiko gutxi izatea, eta ez da soilik enpleguaren munduan parte hartzera mugatzen. Baizik eta bizitzaren beste alderdi batzuetan adierazten da. (385/2013 gizarte-bazterketa balioesteko tresna teknikoa).

LEHENENGOA

ARAUDIA

*1.1. Definizioa eta helburuak.*

Tutoretzapeko etxebizitzak egonaldi labur edo ertainerako bizitoki kolektiboa eskaintzen die bazterketa-arrisku handian dauden pertsonei. Babes-intentsitate baxuko zerbitzu bat da, modu iraunkorrean etxebizitzan bertan dagoen langilerik izan gabe, udaleko gizarte-zerbitzuan erreferentziako teknikarien babesa du eginkizun hauek egin ditzan:

a) Gainbegiratze-lanak, etxebizitzan bertan.

b) Etxebizitzan edo udaleko gizarte-zerbitzuetan eskaini ahal izango diren bitartekaritza-bitartekotzarako, tutoretzarako eta lagun egiteko eginkizuna. Nagusiki etxebizitzen eraikin arrunt

— Política de vivienda dirigida a la propiedad y no al alquiler social.

— Vivienda como generadora de pobreza (hipotecas y alquileres altos, de forma permanente).

Frente a las situaciones aquí mencionadas el proyecto Elkar-ekin presentado por la Diputación de Gipuzkoa en junio de 2016 tiene como objetivo liderar construyendo entre diferentes el plan de inclusión social de Gipuzkoa (Según el decreto cartera, le corresponde a la Diputación Foral).

*Experiencia comarcal.*

En la comarca, en Beterri Buruntza precisamente se han desarrollado varios proyectos hasta la fecha. Con el proyecto que tenemos entre manos se da un paso más en el valle.

— Experiencias de proyectos coordinados.

— Invernaderos Auzolan.

— Pisos de emergencia social para mujeres.

— Formación y empleo.

— Foro social en Hernani.

— Coordinación sistemática entre personal técnico.

*Concepto exclusión.*

Definición.

Fenómeno social que se ve expresado en la vida de las personas. Este fenómeno da cabida a múltliples situaciones que tienen en común el que estas se encuentran en un proceso de alejamiento del centro de la sociedad (los estándares medios de vida de la sociedad de pertenencia). La persona en situación de exclusión social está en la sociedad en una posición social de alejamiento. La persona está alejada o alejándose:

— De los bienes, recursos (relaciones, materiales, personales) y servicios del nivel medio de una determinada sociedad.

— Del nivel de vida y del nivel de disfrute de los derechos sociales propios de la sociedad de pertenencia.

— De las oportunidades que brinda la ciudadanía, en nuestra sociedad actual, para la satisfacción de las necesidades básicas de la persona.

Las personas se encuentran en situación de exclusión social cuando sus condiciones de vida y convivencia están afectadas por múltiples carencias que persisten en el tiempo. La exclusión tiene un carácter multidimensional, por lo que algunas personas o grupos se ven excluidos de la participación en los intercambios, prácticas y derechos sociales que constituyen la inclusión social y por lo tanto de la identidad ciudadana. La exclusión social no se refiere únicamente a la escasez de recursos económicos, ni se limita a la mera participación en el mundo del empleo. Sino que se manifiesta en otros aspectos de la vida. (385/2013 Instrumento técnico de valoración de la exclusión social).

PRIMERA

NORMATIVA

*1.1. Definición y objetivos.*

La vivienda tutelada ofrece alojamiento, de carácter colectivo, de corta o media estancia a personas en situación de alto riesgo de exclusión. Es un servicio con baja intensidad de apoyo que, sin contar con personal presente de forma permanente, cuenta con el apoyo de personal técnico de referencia en el Servicio Municipal para realizar funciones de:

a) Supervisión, de carácter presencial en la vivienda.

b) Mediación-intermediación, tutelaje y acompañamiento que podrán prestarse en la vivienda o en los servicios sociales municipales. Se ubica preferentemente en un edificio ordinario

EK\CV GAO-I-2019-02740

batean egoten da. Eta bertako helburu nagusiak dira erabiltzaileek egoera normalizatu baterantz igarotzeko prozesuak egitea eta gaitasun pertsonalak, autoestimua, konfiantza pertsonala eta bizitza autonomo bat egiteko abilidadeak mantendu, berreskuratu eta/edo garatzea. Horretarako, erabiltzaileei eskatzen zaie beren arreta pertsonalizatuko plana (aurrerantzean APP), beren prozesu indibidualean zehaztutako ekintzak eta helburuak lortzeko bidea jorratzeko konpromisoa hartzea.

*1.2. Xedea.*

Arau honen xedea da gizarte inklusiora bideratutako zerbitzuaren arloan, Hernanin eta Lasarte-Orian kokatutako pisuetarako sarbidea eta prozedura arautzea. Pisu horietara sarbidea, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo herritarrak izango dute. Horiek guztiek gizarte-zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean eta 185/2015 dekretuan zehaztutako lehen mailako arretako erantzukizun publikoaren baliabideak osatzen dituzte.

Inklusio prozesurako bi pisu daude, harrera pisua Hernanin kokatua dago eta Lasarte-Orian kokatutakoa emanzipaziorako da. Aurrenekoan 6 hilabete pasa ondoren erabiltzailea bigarrenera pasako da.

*1.3. Erabiltzaileak.*

1. Erreferentziak profesionalaren balioespenaren arabera bazterketa-arrisku handian dauden pertsonak, halakotzat jotzen dira zerbitzu honetarako:

a) 18 urte edo gehiago izatea.

b) Egonaldi labur edo ertainerako, beste bizitoki bat behar dutenak, ez dutelako bizitoki egokirik, eta gainbegiratze prozesua behar dutenek gizarteratze-prozesua egin ahal izateko.

c) Baliabide ekonomiko pertsonalik ez dutenak.

d) Gizartearen eta familiaren babesik ez dutenak.

2. Aurretik egoitza zentroetan arreta izan dutenek, bizitoki-zerbitzu honetarako sarbidea izan dezakete bazterketa-arrisku handian badaude eta bigarren-mailako arretatik eskaintzen zitzaien inklusio-prozesua eta arreta eten egin badira.

3. Unitate familiarra mantentze aldera, larrialdi egoera batean, pisutan plaza libreak izanez gero eta beti balorazio tekniko baten menpean, erbitzu honetarako sarbidea izan dezakete:

a) Ezkontide edo izatezko bikoteek, baldin eta eskatzailearekin bizi badira ohiko eran, salbu azken hori tratu txarren emakumezko biktima bat bada.

b) Beren kargura dauden adingabeek.

c) Beren tutoretzapean dauden edo, hala egon gabe, mendekotasun-arriskuan edo -egoeran dauden eta eskatzailearekin normalean bizi diren helduek.

Ez dute zerbitzurako sarbiderik izango.

a) Laguntza sanitario espezializatua behar duten pertsonek, maila honetako baliabide zehatzak behar dituztenak, tratamendu edo teknika medikoak edo erizaintzakoak.

b) Gaixotasun infekto-kutsakorrak dituztenek, prebentzio unibertsalerako neurriak hartu arren ezin, ezin bada bermatu gaixotasuna ez zaiela kutsatuko gainerako erabiltzaileei.

c) Portaera nahasmendu larria dutenek, beren jokabidearekin zentroaren funtzionamendu normala eragotz badezakete eta/edo zentroko elkarbizitza oztopa badezakete.

*1.4. Baldintzak.*

1.4.1. Administratiboak.

1. Adina: 18 eta 64 urte bitarte dituzten pertsonak.

de viviendas. Y sus principales objetivos son, que las personas usuarias realicen procesos de transición hacia una situación normalizada y que mantengan, recuperen y/o desarrollen las competencias personales, la autoestima, la confianza personal y las habilidades para desarrollar una vida autónoma, requiriéndose a las personas usuarias el compromiso de realizar las acciones que se definan en su PAP y, en su caso, en su programación individual.

*1.2. Objeto.*

Es objeto del presente documento regular el procedimiento de acceso a los servicios de inclusión social, en concreto a los pisos de inclusión social, dependientes de los municipios siguientes: Andoain, Atigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta y Usurbil, que conforman un conjunto de recursos de responsabilidad pública de atención primaria definida en la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales y el decreto 185/2015.

Hay dos pisos para el proceso de inclusión, el piso de acogida se encuentra en Hernani y el de emancipación en Lasarte-Oria. Tras una estancia de 6 meses en el primero piso, la persona usuaria pasará al segundo.

*1.3. Personas usuarias.*

1. Personas en situación de alto riesgo de exclusión, entendiendo por tales, a los efectos de este servicio, aquellas que, según la valoración de la o del profesional de referencia:

a) 18 años o más.

b) Requieren una alternativa de alojamiento, de corta o media estancia, con supervisión en la vivienda, por carecer de una alternativa de alojamiento adecuada para poder realizar su proceso de inserción y en condiciones de habitabilidad.

c) Sin recursos económicos personales.

d) Y sin apoyo sociofamiliar.

2. Las personas que hayan sido atendidas en centros residenciales podrán acceder a este servicio de alojamiento si se encuentran en situación de alto riesgo de exclusión y su proceso de inclusión y la atención que se les venía ofreciendo desde el nivel de atención secundaria se han interrumpido.

3. A fin de mantener la unidad convivencial, en caso de emergencia, siempre que queden plazas libres en los pisos y bajo valoración técnica, también podrán acceder a este servicio:

a) Quien sea cónyuge o pareja de hecho con relación de convivencia habitual de la persona solicitante, salvo cuando esta última sea una mujer víctima de maltrato.

b) Las personas menores de edad que se encuentren a su cargo.

c) Las personas adultas que estén bajo su tutela o que, sin estarlo, se encuentren en riesgo o situación de dependencia y convivan habitualmente con la persona solicitante.

No podrán acceder al servicio.

a) Personas que precisen de una asistencia sanitaria especializada, al requerir un tratamiento o técnicas médicas o de enfermería de nivel asistencial superior a este tipo de recursos.

b) Personas que estén afectadas de una enfermedad infecto-contagiosa tal que, adoptando el centro en el que se encuentre el recurso las medidas de prevención universales, no se pueda garantizar la prevención del contagio a las otras personas usuarias.

c) Personas que presenten graves trastornos de comportamiento que distorsionen el normal funcionamiento del centro y/o afecten a la normal convivencia en el mismo.

*1.4. Requisitos.*

1.4.1. Administrativos.

1. Edad: Personas comprendidas entre los 18 y 64 años.

EK\CV GAO-I-2019-02740

2. Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerri batean erroldatuta egotea eskaera data baino 6 hilabete lehenagotik; hala, eskaera egiteko unean erroldatuta egon behar da Buruntzaldea eskualdeko udalerrietako baten batean eta horrekin batera bertan izan beharko da legezko eta benetako bizilekua. Salbuespen gisa, eskaera data baino gutxienez 6 hilabete lehenagotik Gipuzkoako gizartean errotuta daudela frogatzen dutenak legezko bizilekuaren eskakizuna betetzetik salbuetsita geratu ahal izango dira. Pertsona bat gizartean errotuta dagoela ulertuko da Gipuzkoako gizartean sartzeko borondatea erakusten duten jarduerak egiten parte hartu badu jarraitasunez: eskolatzea, enplegua, prestakuntza-jarduerak, ohiko harremana gizarte-zerbitzuekin edo gizarte-erakundeekin, etab.

3. Zerbitzuaren premia justifikatzeko adinako gizarte-bazterketa pairatzea, uztailaren 16ko 385/2013 Dekretuak onartutako gizarte-bazterketa balioesteko tresnan zehaztutakoaren arabera. Edo une horretan indarrean dagoenaren arabera.

4. Profesionalek gidatutako esku-hartze sozialak eta gizarte eta hezkuntza-arlokoak onartzeko gai izatea eta gizarteratze-prozesua egin ahal izateko baliabide pertsonalak izatea.

5. Osasun-egoerari dagokionez, erakunde sanitarioetan asistentzia etengabe edo ziklikoaren beharrik ez izatea, eta baliabideetan osasun publikoko neurririk hartu behar ez izatea. Salbuespen gisa, baliabideak eskuratu ahal izango dituzte gaixotasun kroniko edo adikziozkoak dituztenek, baldin eta eskaera egiten duten unean gainbegiratuta badaude eta arazoa gainditzeko prozesu positibo, iraunkor eta egiaztagarrian.

6. Autonomia pertsonalari dagokionez, hirugarren pertsona baten beharrik ez izatea eguneroko bizitzako eginkizunetarako, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritako baldintzetan.

7. Lehen mailako arreta esparruan, Gizarte-inklusiorako prozesu bat egitea eragozten duen gaixotasun mentalik ez izatea, lehen mailako arretaren esparruan.

8. Ostatu-zerbitzuetan elkarbizitza asalda dezakeen portaera-nahasmendu larririk ez izatea.

1.4.2. Espezifikoak.

a) Egonaldi labur edo ertainerako bizitoki bat behar izatea gizarte-inklusiorako ibilbide bat egiteko.

b) Bere egoeraz konturatzea eta hori aldatzeko motibazioa izatea.

c) Inklusio sozial eta soziolaboral edo okupazionalaren ibilbide bat egiteko konpromisoa hartzea, eta hori egiten jarraitzea zerbitzu hau erabiltzen den bitartean.

d) Gizarte eta hezkuntzako intentsitate baxuko babesa behar izatea, komunitate-ingurunean bizitza autonomoa egiteko eta gizarte-inklusiorako gaitasun pertsonalak mantentzeko edo garatzeko.

e) Gizarte-zerbitzuen sareko horniduratik edo eskaintzen dituen aukeretatik kanpo dagoen asistentzia sanitario espezializaturik eta/edo iraunkorrik ez behar izatea.

f) Zerbitzuaren funtzionamendua edo bertako elkarbizitza larriki asalda dezaketen edo pertsonarentzat berarentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo profesionalentzat arriskutsua izan daitekeen portaera-nahasmendurik ez izatea ezta jarrerarik ere.

g) Ez uko egitea dagokion tratamenduari, gaixotasun infekto-kutsakor bat eta/edo mentala izanez gero.

*1.5. Prozeduraren hasiera.*

1. Interesduna Buruntzaldean erroldatuta dagoen udaleko gizarte-zerbitzuetan aurrez eskaera eginda hasiko da prozedura.

2. Empadronamiento en un municipio del Territorio Histórico de Gipuzkoa con 6 meses de antelación a la fecha de la solicitud, debiendo estar empadronado en el momento de realizar la solicitud en alguno de los municipios de la comarca de Buruntzaldea que estará acompañado de residencia legal y efectiva en el mismo. Excepcionalmente, las personas que demuestren un arraigo social en Gipuzkoa de al menos 6 meses inmediatamente anteriores a la fecha de la solicitud, podrán ser eximidas del requisito de residencia legal. Por arraigo social se entiende la participación continuada en actividades que demuestren una voluntad de integración social en Gipuzkoa: escolarización, empleo, actividades formativas, relación frecuente con los servicios sociales o entidades sociales, etc.

3. Presentar un grado de exclusión social que justifique la necesidad del servicio, determinado según el Instrumento de Valoración de la Exclusión Social aprobado por Decreto 385/2013, de 16 de julio. O el que en el momento se encuentre en vigor.

4. Presentar capacidad para la aceptación de una intervención social socio-educativa pautada por profesionales y tener recursos personales para efectuar un proceso de inclusión social.

5. Presentar un estado de salud que no requiera asistencia continuada o cíclica en instituciones sanitarias, ni la adopción de medidas de salud pública en los recursos. Excepcionalmente, podrán optar a los recursos aquellas personas con enfermedades crónicas o adictivas, siempre que se encuentren en el momento de la solicitud bajo supervisión y en proceso de superación positivo, duradero y verificable.

6. Presentar un grado de autonomía personal que no precise de ayuda de tercera persona para la realización de las actividades de la vida diaria en los términos de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia.

7. No presentar un grado de enfermedad mental que impida la realización de un proceso de inclusión social, en el marco de la atención primaria.

8. No padecer trastornos de conducta graves que puedan perturbar la convivencia en los servicios de alojamiento.

1.4.2. Específicos.

a) Requerir una alternativa de alojamiento de corta o media estancia para realizar un itinerario de inclusión social.

b) Tener conciencia de su situación y motivación por cambiarla.

c) Comprometerse a realizar un itinerario de inclusión social y sociolaboral u ocupacional, y mantenerse realizándolo mientras se utiliza este servicio.

d) Requerir apoyo de baja intensidad, de carácter socioeducativo, para mantener o desarrollar capacidades personales para la vida autónoma en el entorno comunitario y para la inclusión social.

e) No precisar una asistencia sanitaria especializada y/o permanente fuera del alcance y posibilidades de las dotaciones propias de la red de servicios sociales.

f) No padecer trastornos de conducta ni presentar comportamientos que puedan perturbar gravemente el funcionamiento del servicio o la normal convivencia en el mismo o que supongan riesgo para la propia persona, para otras personas usuarias o para las y los profesionales.

g) No rechazar el tratamiento que corresponda, en caso de padecer una enfermedad infecto-contagiosa y/o mental.

*1.5. Inicio del procedimiento comarcal.*

1. El procedimiento se iniciará previa solicitud en los servicios sociales municipales del ayuntamiento de Buruntzaldea.

EK\CV GAO-I-2019-02740

2. Salbuespenez 3. puntuko b) letrako baldintzetan gizartean errotuta daudela egiaztatzen duten erroldatu gabeko pertsonen kasuan, gizarte-erakunde gaituen bidez egindako eskaerak onartuko dira.

3. Zerbitzuaren egokitasuna baloratu ondoren, erreferentziako gizarte-zerbitzuak eskualdeko jarraipen batzordeari proposatuko dio bere udalerriko herritar batek programa honetan parte hartzeko baldintzak betetzen dituela eta interesa duela.

4. Jarraipen batzordeak eskaera hori onartu ondoren, jatorrizko udalari proposatuko dio prozedura administratibori jarraipena ematea.

5. Pisuan tokirik ez dagoenean jarraipen batzordeak egoera horren berri emango du eta eskatzailea itxaron zerrendan jarriko da.

6. Jatorrizko udalak barne prozedura abian jarriko du erreferentziazko gizarte langileak ebre txosten proposamena burutu eta onarpenerako prozedurara bideratuko du. Txosten proposamenean, besteak beste, erabiltzailearen aportazioa zehaztuko ditu.

7. Jatorrizko Udalak onartu ondoren, abenduaren 5eko gizarte-zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean eta zerbitzuen zorroari buruzko dekretuan 1.9.2 fitxan jasotako APP-a osatuko da eskatzailearen adostasunarekin eta gizarte txostena osatuko da modu honetan.

8. Jatorrizko udalean onartu ostean, eskualdeari jakinaraziko zaio eta zerbitzuan sartzeko zehaztasuna.

*1.6. Eskaerarekin batera aurkeztuko den dokumentazioa.*

1. Eskatzailearen identitatea egiaztatzeko dokumentuaren kopia.

2. Diru-sarreren deklarazioa, horrelakorik bada.

3. Errolda-ziurtagiria edo errotuta dagoela frogatzeko dokumentazioa.

4. Behar izanez gero, txosten medikoa, eskatzaileak 4. ataleko e) eta g) letretan ezarritako baldintzak betetzen dituela jasoko duena eta, kasua bada, medikaziorako jarraibideak zehaztuko dituena.

5. Horrelakorik balu, desgaitasunaren balioespena eta/edo mendetasun-egoeraren balioespena.

6. Kasu bakoitzari orientazio egokiagoa emateko baliagarria izan daitekeen beste edozein informazio.

*1.7. Balioespena, diagnostikoa eta orientazioa.*

Erreferentziako gizarte-langileak egindako gizarte txosteneko oinarria eta jasoko dituen alderdiak:

a) Gizarte-bazterketaren mailaren balorazioa, uztailaren 16ko 385/2013 Dekretuak onartutako gizarte-bazterketa balioesteko tresnan oinarrituko da edo eskaera egiteko unean indarrean dagoen tresna izango da kontutan.

b) Deribazioaren motibazioa eta profesionalek egindako aldeko balioespena eta orientazioa (berariaz balioetsiko dira gizarteratze-prozesua egiteko baliabide pertsonalak).

c) Eskatzailearekin eta/edo familia eskatzailearekin erlazionatutakoak:

— Lehenagoko esku-hartzeetan pertsona horrek emandako erantzuna.

— Kronifikazioaren edo narriadura pertsonalaren gradua.

— Esku-hartzearen bidez lortu nahi diren helburu estrukturalak.

— Baliabide egokiena zein den, premiak eta helburuak kontuan izanda.

— Esku-hartzearen gutxi gorabeherako iraupena.

2. Excepcionalmente, en el caso de las personas no empadronadas que acrediten arraigo social en los términos de la letra b) del tercer punto, se admitirán solicitudes a través de entidades sociales habilitadas.

3. Una vez valorada la idoneidad del servicio, los servicios sociales de referencia propondrán a la comisión de seguimiento, que una/un ciudadana/ciudadano que reúne los requisitos exigidos y ha mostrado interés ha de tomar parte en dicho programa.

4. Una vez de que la comisión de seguimiento apruebe el recurso, propondrá al ayuntamiento de referencia la realización de un seguimiento al procedimiento administrativo.

5. En caso de no existir plazas libres en el piso, la comisión de segumiento dará cuenta de esa situación, pasando la persona solicitante a formar parte de la lista de espera.

6. El Ayuntamiento de procedencia iniciará el procedimiento interno correspondiente y el técnico en trabajo social emitirá su informe propuesta, derivándolo al proceso de aprobación correspondiente. El informe propuesta establecerá, entre otras, la aportación de la persona usuaria.

7. Una vez se haya aprobado por parte del Ayuntamiento de procedencia, se realizará el plan de prestación de atención personalizada con el consentimiento de la persona solicitante recogido en la Ley 12/2008 de 5 de diciembre sobre Servicios Sociales y en la ficha 1.9.2. del Decreto sobre la bolsa de servicios.

8. Una vez se haya aprobado en el municipio de procedencia, se le comunicará a la comarca, proponiéndole que entre en el servicio.

*1.6. Documentación a presentar junto con la solicitud.*

1. Fotocopia de documento acreditativo de la identidad de la persona solicitante.

2. Declaración de ingresos si los hubiera.

3. Certificado de empadronamiento o documentación acreditativa de arraigo.

4. En caso de ser necesario, informe médico en el que se haga constar que la persona solicitante cumple con los requisitos en las letras e) y g) del apartado cuarto y, en su caso, las pautas de medicación.

5. Si la tuviera, valoración de la discapacidad y/o valoración de la situación de dependencia.

6. Cualquier otra información que resulte pertinente y que permita dar la orientación más adecuada a cada caso.

*1.7. Valoración, diagnóstico y orientación.*

En el informe social elaborado por el técnico en trabajo social de referencia se recogerán entre otros los siguientes aspectos:

a) Valoración del grado de exclusión social según el Instrumento de Valoración de la exclusión Social aprobado por Decreto 385/2013, de 16 de julio, o el instrumento que se encuentre en vigor en el momento de realizar la solicitud.

b) Informe social que incluirá una motivación de la derivación y una valoración y orientación profesional favorable. En el informe social se valorarán expresamente los recursos personales para realizar un proceso de incorporación social.

c) Aspectos relacionados con la persona solicitante y/o familia solicitante:

— Respuesta de la persona a intervenciones previas.

— Grado de cronificación y de deterioro personal.

— Objetivos estructurales a cubrir a través de la intervención.

— Recurso más adecuado al perfil, las necesidades y los objetivos de la persona destinataria.

— Duración estimada de la intervención.

EK\CV GAO-I-2019-02740

— Espediente osoa, zerbitzua (pisua) dagoen udalerriko gizarte-zerbitzuetara bideratuko da.

*1.8. Ebazpena, plazaren adjudikazioa eta onarpena.*

1. Espediente osoa ikusita eta jarraipen batzordeak onartuta, jatorrizko udalak eskatutako zerbitzurako sarbidea ematea edo ukatzea ebatziko du.

2. Larrialdi egoeretan, ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea, eskaera jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, 30 egunekoa izango da.

3. Eskatzaileari luzatuko zaion ebazpenaren jakinarazpenean, emango zaion zerbitzu mota eta baimendutako esku-hartzearen iraupena identifikatu beharko dira.

4. Zerbitzua ukatzen duten ebazpenak behar beste arrazoituta egon beharko dute.

5. Udal-ebazpena eskualdeko jarraipen batzordeari eta etxebizitza dagoen gizarte zerbitzuei bidaliko zaie.

*1.9. Itxarote-zerrenda.*

Itxarote-zerrenda da eskura dauden gizarte-zerbitzuen arabera gizarte-premiei arreta emateko, eta baliabide bat eskuratzeko aldeko ebazpena lortu duten pertsonen sarrera-ordena ezartzen duen tresna.

1. Hauek izango dira itxarote-zerrenda kudeatzeko irizpideak:

a) Premiaren maila.

b) Esku-hartze prozesuaren bilakaera positiboa.

c) Arriskua edo kalteberatasuna.

d) Eskaera-data.

2. Eskatzaileak edo, kasua denean, eskaera formalizatu duen erakundeak, eskaera itxarote-zerrendan zenbatgarrena den jakin ahal izango dute.

3. Itxarote zerrendan kudeaketa buruntzaldeako eskualdeko batzordeari dagokio.

*1.10. Esleitutako zerbitzura egokitzeko aldia.*

1. Udalak erabiltzaileari aldeko ebazpena jakinarazten dion momentuan, dagokion pisuan egokitzapen faseari hasiera emateko data adostuko da. Egokitzapen fasea ez da 30 egunetik gorakoa izango.

2. Egokitzapen faseari hasiera emateko datan, interesdun pertsona ez bada agertzen, hiru egun baliodun izango ditu agertze ezaren arrazoia justifikatzeko, ez badu justifikatzeko nahiko arrazoi azaldu, plazari uko egiten diola ulertuko da; horrela, zerrendako hurrengo pertsonarentzat izango litzateke.

3. Pisura sartzeko unean erabiltzaileari erreferentziako gizarte langileak lagunduko dio eskualdeko pisura eta bertan etxebizitzako esku-hartze teknikaria aurkeztuko dio. Une horretan, gizarte langileak erabiltzailea bertan dela teknikariari aurkeztu eta adieraziko dio arreta pertsonalizatua emateko plana eta koordinaziorako lehen bilera ezarriko du.

4. Erreferentziazko gizarte langileak bere eginkizunetan jardungo du gizarte-zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 19. artikuluan aurreikusitako esku-hartzearen oinarrizko prozedurara egokituta.

5. Egokitzapen fasea izango da lehenengo hilabetea, hori pasatu ostean eta ebaluatu ondoren, egonaldia behin betiko onartutzat emango da.

— La totalidad del expediente se derivará a los servicios sociales del municipio donde esté ubicado el servicio (piso).

*1.8. Resolución y adjudicación de plaza y admisión.*

1. A la vista de la totalidad del expediente, y una vez aprobado por la comisión de seguimiento, el ayuntamiento de referencia resolverá la concesión o denegación de acceso al servicio solicitado.

2. En situaciones de riesgo, el plazo máximo para dictar y notificar la resolución será de 30 días, contados desde la fecha de recepción de la solicitud en los servicios sociales correspondientes.

3. La resolución por la que se concede el acceso al servicio solicitado deberá identificar el tipo de servicio y la duración de la intervención autorizada. Dicha resolución deberá ser notificada a la persona solicitante.

4. Las resoluciones denegatorias deberán estar suficientemente motivadas.

5. La resolución municipal será remitida a la comisión de seguimiento y al servicio social donde esté ubicada la vivienda.

*1.9. Lista de espera.*

La lista de espera es el instrumento a través del cual se ordenan, las prioridades de atención a las necesidades sociales en función de los servicios disponibles, estableciendo el orden de acceso de aquellas personas que han obtenido una resolución favorable de acceso al servicio.

1. Los criterios de gestión de la lista de espera serán los siguientes:

a) Grado de necesidad.

b) Evolución positiva del proceso de intervención.

c) Riesgo de vulnerabilidad.

d) Fecha de solicitud.

2. La persona solicitante o, en su caso, la entidad a través de la que se haya formalizado su solicitud, podrán conocer la posición que ocupa su solicitud en la lista de espera.

3. La gestión de la lista de espera corresponde a la comisión de seguimiento comarcal.

*1.10. Periodo de adaptación al servicio asignado.*

1. Una vez notificada a la persona usuaria la resolución favorable por parte del ayuntamiento, se acordará una fecha para iniciar la fase de adaptación en el piso. La fase de adaptación en ningún caso podrá ser superior a 30 días.

2. En el caso de que la persona interesada no acudiera en la fecha acordada para iniciar la fase de adaptación, dispondrá de 3 días hábiles para justificar la causa de su ausencia, y en el caso de no aportar suficientes causas que justifiquen su ausencia, se entenderá que renuncia a la plaza, quedando ésta disponible para la siguiente persona de la lista.

3. Al ingreso en el piso la persona solicitante será acompañada por su técnico en trabajo social de referencia, quien en ese mismo momento le presentará al profesional técnico de la vivienda tutelada que participará en la intervención. En ese momento, el técnico en trabajo social de referencia estando presente el profesional técnico de la vivienda tutelada le presentará a éste el plan de atención personalizado y fijarán la fecha para la primera reunión de coordinación.

4. El técnico en trabajo social de referencia del caso ejercerá sus funciones adecuándolas al procedimiento básico de intervención previsto en el artículo 19 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales.

5. El primer mes posterior a la fecha real de acceso se considerará como fase de adaptación. Transcurrida la cual y tras su evaluación, la estancia tendrá carácter definitivo.

EK\CV GAO-I-2019-02740

6. Egokitzapen fasean, zerbitzua ematen duen erakundeak (lizitazio baten baitan esku-hartze lanetan Hernanin edo Lasarte-Orian lanean ari den lantaldeak) txosten arrazoitu bat egin ahal izango du proposatutako pertsona zentroan behin betiko onartzeko zailtasunak alegatzeko.

7. Zerbitzurako sarbideak erabiltzailea bertako funtzionamendu-arauak onartzera behartzen du.

*1.11. Behin betiko sarbidea izateko aurretiazko tramiteak.*

Zerbitzura sartuko den pertsonak, APP-a, pisurako sarbide-kontratua eta I eranskinean zehazten den pisuko barne araudia sinatuko ditu.

*1.12. Arreta plan pertsonalizatua.*

Plan pertsonalizatuak esku-hartzearen helburu estrukturalak lortzeko garatu beharreko ekintzak zehaztuko ditu. Zehaztutako ekintzak esparru ezberdinetan jasota egongo dira, hala nola:

— Pertsona bera: gaitasun eta trebetasun sozialak, prestakuntza, bizi dinamismoak.

— Bizikidetza: ostatu eta etxebizitza egoera, lotura afektiboak, gizarte babesa.

— Ekonomika, lan eta egoitza: egoera ekonomikoa, okupazio eta lan egoera.

— Osasuna: fisikoa, mentala, adikzioak, lanerako ezintasuna.

— Esparru soziala: onarpen soziala, arau eta gizarte ingurunearekiko harremanak.

— Judiziala.

Arreta pertsonalizatua emateko planaren garapen prozesua erreferentziako gizarte-langileak jarraitu eta koordinatuko du etxebizitzako esku-hartze teknikariarekin koordinatuta.

*1.13. Denbora.*

